

AURKEZPENA

Gu Eider Barrasa, Mirene Idiakez, Maialen Garcia eta Ane de Juana gara eta 2MA taldea sortu dugu, Startinnovako proiektuan parte hartzeko. Urretxun dagoen ikastetxe bateko ikasleak gara, Urretxu-Zumarraga Ikastolako ikasleak, hain zuzen ere.

Hasiera batean, zenbait proiektu ezberdin bururatu zitzaizkigu, baina asko pentsatu ondoren, momentu honetan gizartean ikusten dugun behar garrantzitsu bat asetzen duen proiektuarekin aurrera egitea erabaki genuen.

Azken urteotan, birziklatzeko garaian arazo larriak daudela sumatu ditugu egindako hainbat inkesten bitartez. Nori ez zaio gertatu birziklatzerako orduan zaborra non bota ez jakitea? Nahasmen hau ikusita, eta bestalde, kontuan izanda teknologiak gaur egungo gizartean duen eragina, hondakinen sailkapena era egokian gauzatzeko, aplikazio bat egitea bururatu zaigu.

Bertan, hondakin bakoitza non bota behar den agertuko da. Hau lortzeko, hondakin bakoitzaren barra-kodea erabiliko dugu. Honi argazki bat besterik ateraz, zalantza guztiak desagertuko dira, eta gutxinaka-gutxinaka jendeak behar den bezala birziklatzen ikasiko du. Ezinezkoa da hondakin guztiek barra-kodea edukitzea, horregatik, barra-kodea ez dutenek ere leku bat izango dute gure aplikazioan. Jakinda ere, ez dela oso zehatza izango, zein hondakinetara bideratuta egon daitekeen jakiteko balioko luke, hipotesi gisa.

Horretarako, beste enpresa eta erakundeen laguntzaz baliatuko gara aliantzak eginez, akordioetara iristeko xedearekin. Esate baterako, Greenpeace, Sasieta, “Bask” denda arropa, eta Ecoembes bezalakoak. Beraiekin kontaktuan jarri ondoren, gure proiektua lau haizetara publizitatzen hasiko gara, geroz eta denbora laburrean, pertsona kantitate gehiagok bizitzen ari garen arazo larri honetaz ohartzeko. Gure etorkizuna gure eskuetan baitago.

Bukatzeko, aplikazioaren izena “Trashout” izatea pentsatu dugu, marketing-a eta publizitatea egiteko garaian izen itsaskorra delako, eta baita erraz gogoratzeko modukoa ere. Gainera, aplikazioa guztiz doakoa izango da, gure ustez, hori izango baita gure indargunea eta gailurrera eramango gaituena.

